



## HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN HIRU URTEKO PLAN NAGUSIA ONARTZEN DUEN HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA (2008-2011)

### 1.- SARRERA

2008-2011ko Hiru Urteko Plan Nagusi honek zehazten ditu Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduera-ildo nagusiak. Ildo horiek Urteko Planetan (IUP) garatuko dira urtero eta plan horietan konkretatuko dira ikasturte bakoitzean egin beharreko jarduerak edo azpiprozesuak.

Plan honen bidez Hezkuntza Ikuskaritzarako antolaketa-eredua finkatu nahi da. Eredu horrek modu eraginkorrean erantzun beharko die euskal hezkuntza-sistemaren beharriaz oro har eta ikastetxeenei nahiz Administrazioarenei bereziki, eurak baitira egiten diren jardueren hartzaile nagusiak. Antolaketa-eredu horrek koordinazioa eta lan-taldeak osatzea erraztu nahi ditu eta, era berean, ikuskariak parte-hartze eta ardura handiagoa izatera bultzatu nahi ditu, Ikuskaritzaren Urteko Planak osatzen dituzten prozesuen plangintza, garapen eta ebaluazioan. Horregatik guztiagatik, Hiru Urteko Plan Nagusi hau indarrean dagoen bitartean, ISO 9001:2000 arauak egiaztatutako kalitatearen kudeaketa-sistema mantentzea planteatzen da; egiaztatpen hori duela gutxi egin da AENOREk egindako kanpo-auditoriaren bidez.

2004-05 ikasturtetik barne- zein kanpo-ebaluazioko prozesua egiten ari da Ikuskaritzaren jardueren hartzaileek dituzten beharriaz, itxaropenei eta asetze-mailari buruzko informazioa lortzeko, bai barneko hartzaileekin (ikuskarriak, lurraldeetako buruak, ordezkariak, zuzendariak eta sailburuordeak) bai kanpokoekin (ikastetxeetako zuzendariak). Ebaluazio-prozesu horren emaitza gisa ikasturte bakoitzaren amaieran lortzen diren ondorioak kontuan hartzen dira Hiru Urteko eta Urteroko Planak egiteko.

Aurreko Hiru Urteko Planaren indarraldiari begira, Hezkuntza Ikuskaritza arautzen duen legeriak ez du funtsezko aldaketarik esleitutako funtzioen arloan. Ondorioz, indarrean egoten jarraitzen dute ondorengo dekretuek eta EAEko Hezkuntza Ikuskaritza arautzen duen aginduak:

- 342/2001 DEKRETUA, abenduaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa erregulatzekoa. (EHAA 01-12-21)
- 343/2001 DEKRETUA, abenduaren 11koa, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan hizkuntza-eskakizunen eta nahitaezkotasunen esleipenaren erregimen espezifikoaren ezartzekoa. (EHAA 01-12-21)
- 344/2001 DEKRETUA, abenduaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako Lanpostuen Zerrenda onartzekoa. (EHAA 01-12-21)
- AGINDUA, 2002ko ekainaren 18koa, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehaztekoa. (EHAA 01-12-21)

Aurreikuspenen arabera, Hiru Urteko Plan Nagusi honen indarreko aldian 344/2001 Dekretua, lanpostuen zerrendari buruzkoa, eta Hezkuntza Ikuskarrien Kidegora sartzeko lan-eskaintza aldatuko dira.

Hiru Urteko Plan Nagusi honek honako atal hauek jasotzen ditu: Ikuskaritzaren Xedea eta Estrategiak 2007/08 ikasturtearen amaieran egindako berrikuspenaren formulazioarekin, Helburu Orokorrak eta Prozesuen mapa (egiaztatutako Kalitatearen Kudeaketa Sistemari erantzuten dioten sei Makroprozesuak agertzen dira hor). Prestakuntzari, Euskalduntzeari, zerbitzuaren Antolaketari eta Hiru Urteko Plan Nagusiaren Ebaluazioari dagozkien atalak ere agertzen dira bertan.

## 2.- XEDEA ETA ESTRATEGIAK

2007/08 ikasturtearen amaieran Ikuskaritzaren Xedea, Ikuspegia, Balioak eta Estrategiak berrikusi ondoren, Ikuskaritza Zentralak ondoko formulazioa onartu du:

### **XEDEA: EAEko Ikuskaritzaren Xedea honako hau da:**

1. Indarreko legeria betetzen den kontrolatzea eta, horretarako, behar den aholkularitza eta informazioa ematea.
2. Kalitatezko hezkuntza-sistema lortzen laguntzea.
3. Ikastetxeak eta beren emaitzak zein pertsonala ebaluatzea.
4. Hezkuntza-komunitateko hainbat sektoreren eskubideak bermatzea.
5. Hezkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa hezkuntza-administrazioari ematea.

### **IKUSPEGIA: Ikuskaritzak ondorengo nahi du:**

1. Esleituta dituen funtzioak irizpide teknikoen arabera eta izan ditzakeen kanpoko presioei men egin gabe betetzea.
2. Beraien partaideak ondo prestatutako profesionalak izatea, informazioa eta etengabe eguneratzearen aldeko konpromisoa dutenak.
3. Hezkuntza-komunitateko kide guztiek, ikasleek bereziki, kalitateko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea.
4. Taldean lan egitea modu koordinatuan eta irizpide bateratuen arabera.
5. Hezkuntza-komunitatearen errespetua eta onarpen soziala jasotzeko merezimendua lortzea.
6. Ikastetxeak eraginkortasunez ebaluatzea.
7. Hezkuntza-sistemaren hobekuntza-prozesua gidatzea etorkizunaren ikuspegiarekin eta arazoei aurrea hartzearekin.

**BALIOAK: Gure jokaeren eta jarrerren erreferentzia gisa balio duten balioak hauek dira:**

1. Profesionaltasuna: autonomia, errespetua, zintzotasuna eta erantzukizuna.
2. Etengabeko hobekuntzarako jarrera.
3. Erantzun azkarra eskariei: eraginkortasuna eta efizientzia.
4. Talde-lana.

**HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN ESTRATEGIAK: Hezkuntza Ikuskaritza hobetzeko honakoak egin beharko lirateke:**

1. Bere zereginak betetzen ari denean, hezkuntza-komunitatearen partaide guztien eta Hezkuntza Administrazioako arduradunen beharrezanean eta itxaropenean erantzun.
2. Hezkuntza-komunitateko kideek egindako eskarienganako arreta hobetu.
3. Hezkuntza Ikuskaritzari eta beraren zereginen esparruan egiten dituen jardueri eragiten dieten legezko eta erregelamenduzko betekizunak bete.
4. Ikastetxetara egindako bisiten kalitatea hobetu.
5. Modu planifikatuan, koordinatuan eta taldeetan lan egitea, ikuskarien arteko lanen banaketa orekatuz eta horiek burutzeko denbora ezarriz.
6. Plan egokien bidez Ikuskaritzako langile guztien etengabeko prestakuntza eta parte-hartze aktiboa erraztu.
7. Hezkuntza Ikuskaritzako barne- nahiz kanpo-komunikaziorako kanalak hobetu.
8. Hezkuntza Ikuskaritzako berezko jardueren betekizun eta beharrezanetara egokitzeko beharrezko malgutasuna izan.
9. Ikuskaritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetako akatsen edo hutsegiteen arrazoi posibleak identifikatu eta desagerrarazi, eta horrela prozesuak eraginkorrago izan daitezela lagundu.
10. Hezkuntza Ikuskaritzan lan egiten duten pertsonen errekonozimendua bultzatzea.
11. Lurralde Ordezkaritzaren eta Administrazioako beste zerbitzuen arduradunekin, koordinazioa hobetzea.

2008-11 hirurtekoan Xedea, Ikuspegia eta Balioak berrikusi eta eguneratuko dira Ikuskaritzaren kudeaketa-sisteman ezarritakoaren arabera.

### 3.- HELBURU OROKORRAK

Hiru Urteko Plan Nagusi honen bidez ondoko helburu orokorrak lortu nahi dira:


- Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea.
- Diagnostiko-ebaluazioetan parte hartzea eta ikastetxeen hobekuntza-planak gainbegiratzea.
- Hezkuntza Sailaren programak eta proiektuak ikastetxeetan zenbat garatu diren kontrolatzea.
- Indarrean dagoen araudia eta ikasturte hasierako Ebazpenak ikastetxeetan betetzen diren kontrolatzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzako jardueren barne- nahiz kanpo-hartzaileen beharrezanean modu eraginkorrean erantzutea.
- Hezkuntza-komunitatearen eskubideak eta betebeharrak bermatzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- ISO 9001:2000 egiaztagiria mantentzea eta barne-kudeaketako nahiz -antolaketako gauzak hobetzea.
- Ikuskarien prestakuntza eguneratzea Urteroko Planak betetzetik sortzen diren beharrezanen arabera.
- Euskararen erabilera sustatzea hizkuntza-normalizazioa bultzatzeko.
- Barne- nahiz kanpo-komunikazioa hobetzea.

### 4.- IKUSKARITZAREN PROZESUAK.

Jarraian ageri den Ikuskaritzako prozesuen mapa Kalitate Esku-liburuan zehaztuta dagoena da. Makroprozesutan eta Prozesutan egituratuta dago.

**Makroprozesuek** Ikuskaritzaren Kalitatea Kudeatzeko Sistemari erantzuten diote, eta honakoak dira:

- **01 MP.- Estrategia, Planifikazioa eta Antolakuntza.**
- **02 MP.- Zerbitzuak identifikatzea eta ematea.**
- **03 MP.- Giza baliabideen kudeaketa.**
- **04 MP.- Kudeaketa dokumentala.**
- **05 MP.- Baliabide materialen kudeaketa.**
- **06 MP.- Neurketa, Azterketa eta Hobekuntza.**



**01 MP “Estrategia, Planifikazioa eta Antolakuntza” Makroprozesuaren** garapena prozesu estrategikoak deitutakoen bitartez egiten da. Prozesu estrategikoek zerbitzua eta kudeaketa dokumentala nahiz baliabideen kudeaketa bideratzea eta zuzentzea ahalbidetzen dute.

**02 MP “Zerbitzuak identifikatzea eta ematea” Makroprozesua** zerbitzua emateko prozesuak deitutakoen bitartez egiten da. Horiek dira Ikuskaritza-zerbitzuaren oinarria eta haren jardueraren helburu nagusia. Prozesu horiek, aldi berean, zenbait azpiprozesutan zatitu dira Hezkuntza Ikuskaritzak eman beharreko zerbitzuen arabera edo kasu bakoitzean zerbitzu horren arreta jasoko duen hartzaile-motaren arabera.

02 MP “Zerbitzuak identifikatzea eta ematea” Makroprozesuaren baitan ondoko 4 prozesuak daude:

0201 PR Ebaluazio-jarduerak

0202 PR Kontrol-jarduerak

0203 PR Aholkularitza-jarduerak

0204 PR Lankidetzak-jarduerak

Prozesu horiek, aldi berean, azpiprozesutan banatuta daude, eta horiek Urteroko Planetan zehazten dira. 2008-11 tarterako ondokoak izango dira esanguratsuenak:

### **0201 PR Ebaluazio-jarduerak**

*Ikastetxeen ebaluazioa:*

Kalitatea Gestionatzeko Sistemaren ebaluazioa (KGS - Kalitatea Hezkuntzan).

Erregimen orokorreko, bereziko eta kirol-erregimeneko irakaskuntzetako Prestakuntza Zikloen ikuskapena.

Diagnostiko-ebaluazioa.

Ikastetxeen Autonomia Planen ebaluazioa.

*Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa:*

Zerbitzu-betekizunak.

Lanpostuaren profilerako egokitasuna.

Irakaskuntzarako gaitasuna.

Funtzionarioak praktketan (LEP).

*Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa:*

Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa.

### **0202 PR Kontrol-jarduerak**

Ikastetxeen Prestakuntza Proiektuak.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak.

Curriculum Desberdineko Programak.

Hezkuntzako Esku-hartze Espezifikoko Proiektuak.

Ikasle atzerritarren eskolatzea.

Udal-eskolak eta Haur Hezkuntzako Ikastetxe pribatuak (0-3).

Haurreskolak.

Ikastetxeen EED.

Ikastetxeetako taldeak eta ikasleak.

Ikastetxeetako dokumentazio akademikoa eta administratiboa.

Ikastetxe publikoetako irakaskuntza-langileen absentismoa.

Organo kolegiatuen aukeraketa.

Ikastetxeetako eskola-egutegia.

Ikastetxeen Hezkuntza Proiektuak, Urteko Planak eta Memoriak.

AJA eta BEA.

Zuzendaritzako karguen izendapena.

Zuzendaritzakoak ez diren karguen izendapena.

Tutoreen eta ziklo-koordinatzaileen funtzioak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta tutoreen eta sailburuen funtzioak Bigarren Hezkuntzan.

Ikastetxeko curriculumaren ezarpena hezkuntzako etapa eta mailetan.

Curriculum Proiektuak eta programazio didaktikoak.

Curriculumaren egokitzapen esanguratsuak.

Helduen hezkuntza.

Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko araudia betetzea.

Ikasleen diziplinazko espedienteak.

Ebaluazioari, mailaz igarotzeari, ikasleak onartzeari eta abarri buruz indarrean dagoen araudia betetzea.

Euskaratik salbuestea.

DBHko Graduaturako proposamenak.

Irakasleen titulazioak.

Ikasleen absentismoa.

Beldurraraztea eta tratu txarrak ikasleen artean.

Erregimen orokorreko irakaskuntzetako ikasleen emaitza akademikoak.

Ikastetxe publikoetako langileen aurkako erasoak.

Irakasleen, langileen, irakasle ez diren langileen eta ikasleen grebak.

Bizikidetzarako Planak eta Behatokiak.

Langile publikoaren diziplinazko erregimena.

**0203 PR Aholkularitza-jarduerak.**

*Aholkularitza-jarduerak Hezkuntza Ikuskaritzaren ekimenez egiten dira edo erreferentzia-ikastetxeetan egindako kontrol- eta ebaluazio-jardueren ondorioz, edo bestela ikastetxeen nahiz Hezkuntza Saileko beste zerbitzu batzuen eskariei erantzunez izan daitezke. Horien artean batzuk aipa ditzakegu:*

OOGren edo Eskola Kontseiluaren bizikidetzatza-batzordea.  
Diziplinazko espedienteak.  
Ikasleen ebaluazioa alderdi pedagogikotik eta administratibotik.  
Ebaluazio Aktak eta Ikasketa Espedienteak betetzea.  
Ikastetxeen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana eta Memoria egitea.  
Zuzendaritza-taldeak.  
Barne-ebaluazioko prozesuak.

**0204 PR Lankidetzatza-jarduerak.**

*Lankidetzatza-jarduerak Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuen hartzaileek egindako eskarien ondorioz egiten dira. Horien artean batzuk aipa ditzakegu:*

Oposizioetako Epaimahaiak.  
Diagnostiko-ebaluazioa.  
Hezkuntza Saileko arduradunek eskatutako txostenak.  
Zerbitzu-betekizunak, irakasleen merituen baremazioa lehiaketetarako eta beste deialdi batzuetarako.  
Ikasle atzerritarrak eta sozialki kaltetutako herritarrak eskolaratzeko batzordeak.  
Epaimahaiak: Prestakuntza Zikloetara sartzeko Probak, Unibertsitatean sartzeko Probak, Batxilergoko Ezohiko Sariak.  
Irakaskuntza-langileak ikastetxeetan berriro adskribatzeko prozesua.  
Unibertsitate-ikasketetan sartzeko Probei buruzko koordinazioa EHUrekin.  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Legezko Araudia, Ebazpenak eta Zirkularrak egitea.  
Zuzendarien prestakuntza.

Ikuskaritzaren Urteko Plan bakoitzean ikasturtean egin beharreko jarduerak zehaztuko dira.

**03 MP “Giza baliabideen kudeaketa” Makroprozesuak** zerikusia dauka Hezkuntza Ikuskaritzan euren funtzioak egiten dituzten langileekin lotutako prozesuekin.

**04 MP “Kudeaketa dokumentala” Makroprozesuaren** garapena dokumentazioaren eta erregistroen kontrolarekin lotutako prozesu bakar baten bidez egiten da.

**05 MP “Baliabide materialen kudeaketa” Makroprozesua** prozesu bakar baten bidez gauzatzen da, izan ere, Hezkuntza Ikuskaritzaren baitan baliabide materialak eskuratzea, horien jarraipena egitea eta horiek kontrolatzea Administrazio publikoetan aplikatu beharreko araudiaren eskakizunen arabera egiten baita.





**06 MP “Neurketa, Azterketa eta Hobekuntza” Makroprozesua** neurketa- eta azterketa-prozesuak deitutakoen bitartez egiten da. Neurketa- eta azterketa-prozesuek Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa egituratzea eta biltzea ahalbidetzen dute, eta, beharrezkoa bada, zuzentzeko, prebenitzeko eta hobetzeko ekintzak gauzatzea.

Urteko Ikuskaritza Planetan eta Kalitatea Kudeatzeko Sisteman prozesu eta azpiprozesu bakoitza gauzatzeko jarraibideak eta moduak zehazten dira.

## 5.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA.

Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzak ondoko alderdiei erantzungo die lehentasunez:

- Kalitatea gestionatzeko ikastetxeen eta sistemen ebaluazioa eta auditoriak.
- Zuzendaritza-funtzioaren eta irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa.
- Ikastetxeen diagnostiko-ebaluazioa.
- Bizikidetzeta-Planak eta -Behatokiak.
- Berdinen arteko tratu txarrak eta erasoak irakasleei.
- Gatazketan bitartekari izatea eta liskarrak konpontzea.
- Berrikuntza Zuzendaritzaren lehentasunezko ildoak.
- Ikasleen eskubideen eta betebeharren Dekretuaren aplikazioa eta ikastetxeetako AJA eta BEAren aldaketa.
- Ikuskaritza-lanarekin lotutako alderdi juridiko eta administratiboetan sakontzea.
- Curriculum berrien ezarpena.
- Hizkuntza-normalkuntza programa.
- Kalitate-programak eta etengabeko hobekuntzarako programak.
- Aplikazio eta tresna informatikoak.
- Beste prestakuntza-ikastaro batzuk ikuskaritza-jardueran sortzen diren beharrezkoen arabera.

Prestakuntza-jarduera horiek Hezkuntza Ikuskaritzari esleitutako prestakuntza-aurrekontuarekin ordainduko dira eta derrigorrezkotzat hartuko dira, ikuskari nagusiak hala erabakitzen duenean.

Ikuskarien prestakuntza profesionala hobetzeko asmoz, Hezkuntza Ikuskaritzaren premiak zeintzuk diren kontuan hartuta, kongresu, ikastaro, mintegi, sinposio, topaketa, lehiaketa, hitzaldi, bilera eta jardunaldietara joateko erraztasunak emango zaizkie ikuskariei, baita izaera zientifikoko, teknikoko, profesionalako eta elkargo, elkarte edo sindikatu mailako gainontzeko gertakari kolektiboetara joateko ere. Horretarako, ikuskari nagusiaren baimena eduki beharko dute ikuskariek derrigorrean, Ikuskaritzako lurralde-buruaren oniritziarekin batera.



## 6. EUSKALDUNTZEA ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

Atal honetan planteatzen diren xedeek honako helburu hau dute: komunikazio ahozkoak, idatzizkoak eta telematikoak Euskara Erabiltzeko 2008-2012 Planean aurreikusitakora egokitzea:

- 2. HE egiaztatuta duten ikuskarrien kopurua handitzea.
- Euskararen erabileran sakontzea eta hobetzea, idatziz batez ere, 2. HE egiaztatu duten arren zailtasunak dituztenentzat bereziki.
- Barne-komunikazioak eta -txostenak euskaraz egitea eta ikastetxeekiko harremanak euskaraz izatea.
- Euskara Erabiltzeko Planean aurreikusten diren kalitateko komunikazioak sustatzea, testu zuzen, egoki eta argien bidez.
- Hizkuntza-prestakuntza hobetzea, Euskara eta Literatura irakasgaitik salbuetsita ez dauden ikasleen banakako lan-planen aplikazioa ebaluatzeko.

Helburu horiek lortzeko, IRALE programak Hezkuntza Ikuskaritzarako eskaintzen dituen aukera guztiak erabiliko dira.

## 7.- IKUSKARITZA ZERBITZUAREN ANTOLAKUNTZA

### 7.1. ANTOLAKUNTZA

Urteko Planetan zehaztutako Ikuskaritza Plan Nagusi hau Lurraldekako Ikuskaritza Planek garatu eta osatuko dute. Plan horiek lurraldeetako buruek zuzenduko dituzte eta zonaldeko buruek egindako ekarpen espezifikoa izango dituzte. Lurraldekako Ikuskaritza Planek ondoko atalak izango dituzte gutxienez:

- Helburuak (urteko planekoen desberdinak direnean baino ez).
- Ikastetxeen esleipena ikuskariei.
- Zaintzen planifikazioa.
- Garatu beharreko jardueren lurraldekako ikuskari arduradunen izendapena.

Ikuskaritzako kideek euren erreferentziazko zentroetan esku hartzea Urteko Planetan eta Lurralde Planetan zehazten denaren menpe egongo da. Plan horiek hiru hileko Jarduera-gidetan zehazten dira. Edonola ere, ikuskari bakoitzak derrigorrean ikuskatu behar du ikastetxeetan egiten den jarduera eta lurralde-burutzeari ahalik eta lasterren eman behar die ikastetxe horietan gertatzen den edozein gorabehera larriren berri. Lurralde-burutzek berehala eman beharko diete lurralde-ordezkariei eta ikuskari nagusiari informazio horren berri.

Ikuskariak bere erreferentziazko zentroan eragin handiagoa izan dezan ziurtatzeko, ikuskariak berari esleitutako zentro bakoitza gutxienez hiru aldiz bisitatu beharko duela erabaki da (Hezkuntza Ikuskaritzaren antolakuntza eta funtzionamendua zehazten duen 2002ko ekainaren 18ko Aginduko 13. artikulua).

Ildo horretan, ikasturte bakoitzaren hasieran hasierako bisitak egingo dira ikastetxeetara. Bisita horien bidez ikuskariak bertan dauden arazo guztien berri izango du eta bertako jarduera hobetzeko proposamenak egin ahalko ditu.



Jarduera jakin batzuetarako beste zonalde batzuetara joan beharra dagoenean lurralde-buruak ontzat eman beharko du.

Zonalde-buru bat, gaixotasuna edo beste arrazoi bat dela-eta, aldi baterako ez dagoenean, haren funtzioak beteko dituen ikuskariak honako bi lege-xedapen hauek ezarritako eskakizunak bete beharko ditu: Hezkuntza Ikuskaritzaren Antolakuntza eta Funtzionamendua zehazten duen 2002ko ekainaren 18ko Aginduko 4. Xedapen Gehigarriak ezarritakoak, eta Zonalde Burutzak aukeratzeko prozesua deitzen duen 2008ko ekainaren 25eko Langileen Kudeaketako Zuzendariaren Ebazpeneko bigarren atalak ezarritakoak.

## **7.2. ERREFERENTZIA IKASTETXEEN ESLEIPENA.**

Hezkuntza Ikuskaritzaren Antolakuntza eta Funtzionamendua zehazten duen 2002ko ekainaren 18ko Aginduko 3. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuko da.

Esleipen-irizpideak honakoak izango dira:

1. Ikastetxe bakoitzeko erreferentzia-ikuskari bakarra egongo da, ikastetxean ematen diren etapak eta mailak edozein direla ere, baina zerbitzuaren beharrianak direla-eta, ikuskari nagusiak edo lurralde-buruak edozein ikuskariri eskatu ahalko dio unean uneko esku-hartzeak egin ditzan berari esleitutakoa ez den edozein ikastetxetan.
2. Lanbide Heziketako Euskal Planaren prestakuntzako modulu-katalogoa ematen duten ikastetxe publiko nahiz pribatuak ikuskari bati esleituko zaizkio Eibarko zonaldean eta, askoz jota, ikuskari biri beste zonaldeetan. Ikuskariek arestian aipatutako Aginduko 3. artikuluan ageri diren eskakizunak bete beharko dituzte. Ikastetxe horien kopuruaren eta zonaldeko ikastetxe guztien arabera, ikuskari horiei dagokien zonalde bereko beste ikastetxe batzuk esleitu ahalko zaizkie, batez ere prestakuntza-zikloen kopuru esanguratsua dutenak.
3. Oreka egon beharko da zonalde bakoitzeko ikuskariek ikastetxeekiko duten lanari dagokionez. Horretarako, lurralde-buruek ondoko baldintzak hartuko dituzte kontuan:
  - Ikastetxe publikoen, hitzartuen eta pribatuen kopurua ikuskari bakoitzeko.
  - Irakaslea/ikastetxea ratioa, haietako bakoitzean.
  - Ikastetxeetatik Ikuskaritzaren egoitzarainoko distantzia geografikoa.
  - Gizarte-egoera ahuleko ikasle kopuru handia izateagatik bereziki problematikoak diren ikastetxeak.
  - Araututako eta arautu gabeko hezkuntza duten ikastetxeak, arratsaldean Batxilergoa eta Prestakuntza Zikloak irakasten dituztenak edo Helduen Hezkuntza ematen dutenak.
4. Lurralde Burutzek, ikastetxeak ikuskari bakoitzari esleitu aurretik, lehenago adierazitako zirkunstantzietan gain, ondorengo ikuskariek ikastetxe kopuru txikiagoa izango dutela ere hartu beharko dute kontuan:
  - Zonalde-buruek eta Arabako Lurralde Burutzari atxikitakoak.
  - Kalitate Batzordean parte hartzeko Ikuskari Nagusiak proposatu dituen ikuskariek.

- Urteko Planen garapenerako dedikazio trinkoko edo erantzukizun handiagoko eginkizun berezietan lan egiteko Ikuskaritza Nagusiak izendatu dituen ikuskariak.
  - IRALE programako euskara-ikastaroetara joateko liberazio partziala duten ikuskariak.
  - Web orria mantentzeaz eta Ikuskaritzak erabiliko dituen programa informatikoak prestatzeaz arduratzen den ikuskariak.
5. Ikuskariei esleitu beharreko ikastetxeen tipologiari dagokionez, ondorengo irizpideen arabera jokatu da:
- D eredu nagusi den ikastetxeak HE2 edo baliokidea duten ikuskariei esleitu zaizkie.
  - Ez irakasle gisa, ezta ikuskari gisa ere, Haur edo Lehen Hezkuntzan esperientziarik izan ez duten ikuskariei Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak esleitu zaizkie batik bat. Irakaskuntza pribatuan esleitu ahal izango zaizkie bai Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak bai ikastetxe integralak (Lehen eta Bigarren Hezkuntza dutenak)
  - Ez irakasle gisa, ezta ikuskari gisa ere, Batxilergoan eta Prestakuntza Zikloetan esperientziarik ez duten ikuskariei Haur Hezkuntzako ikastetxeak (Hezkuntza Sailak apurka baimentzen dituen 0-3 urteko ikastetxeak edo baimentzeko bidean daudenak barne), Lehen Hezkuntzakoak eta Bigarren Hezkuntzakoak (bakarrik DBHko independenteak) esleitu zaizkie, Lehen eta Bigarren Hezkuntza ematen dituzten ikastetxe pribatu integralak ere esleitu ahal zaizkien arren.
  - Zonaldeko Hizkuntzetako ikastetxeak Filologiaren espezialitatearen bat duten ikuskariei, batez ere, esleitu zaizkie.
  - Gainontzeko ikastetxeak: Pertsona Helduen Hezkuntzakoak, Musika ikastegiak, HLPPak ematen dituztenak...edozein ikuskariri esleitu ahal izango zaizkie, zonaldeko premien arabera. Dena den, zonaldean Musikako espezialista den ala ez hartu behar da kontuan, baita zonaldeko ikuskariak Helduen Hezkuntzaz duten ezagutza-maila ere.
  - Berritzeguneak Zonalde Burutzei esleitu zaizkie edo, Arabaren kasuan, Ikuskaritzako Lurralde Burutzaren ondokoari.
  - Lurralde Burutzak, betiere salbuespenezko kasuetan eta behar bezala justifikatu ondoren, eman ahal izango du lehen aipatutako baldintzaren bat betetzen ez duten ikastetxeak esleitzeko baimena, zonaldeko pertsonalaren bidez ikastetxeei ahalik eta zerbitzurik onena ematea baita lehentasuneko helburua.
6. Ikastetxeak esleitzeko lehen aipatutako irizpideak errespetatuz, herri txikietako ikastetxe guztiak ikuskari bakar bati esleitzeko ahaleginak egingo dira.
7. Ikasturtean zehar ikuskariren batek gaixotasunarengatik edo beste arrazoi batzuegatik lanera etortzerik ezin badu, aldi horretan zonalde horretako beste ikuskari batek edo batzuek beren gain hartu behar dute etortzerik ezin duen ikuskararen erreferentzia-ikastetxeen ardura, tokian tokiko Lurralde Burutzaren proposamenez.



### **7.3. ZAINZA EGUNEAN KANPO ESKARIEI ERANTZUTEKO ANTOLAKETA. KOORDINAZIO BILERAK.**

Ikastetxeei eta herritarrei oro har derrigorrez eman beharreko arreta dela-eta, egunero egon behar da hainbat ikuskari zonalde bakoitzeko egoitzan. Ondorioz, astero gutxienez zaintza-egun bat ezarriko da ikuskari bakoitzarentzat, eta egun hori erreferentzia-ikastetxeei jakinarazi beharko zaie.

Zaintza-eguneko kanpo-eskaritzat hartzen da edozein ikuskariri edo Hezkuntza Ikuskaritzan lan egiten duen administrazio-langileri ahoz nahiz idatziz egindako edozein iradokizun, galdera, kexa edo erreklamazio.

Ikastetxeei buruz egindako kanpo-eskari gehienez erreferentzia-ikuskarria arduratu dadin komeni da; beraz, bai bulegotik kanpo dagoelako, bai bulegoan bertan alde batera utzi ezin duen zereginen bat duelako, une jakin horretan eskariari erantzun ezin dion erreferentzia-ikuskarriaren behin-behineko ordezkapen puntualtzat hartu behar da zaintza.

Eskariak telefonoz jaso daitezke eta/edo pertsonalki pertsona eskatzaileak Hezkuntza Ikuskaritzako bulegoetara egindako bisitaren bidez. Eskaria zaintza-ikuskarriari edo administrazio-langileei egiten zaienean eta premiazkoa edo oso garrantzitsua ez denean, eskari horren jakinarazpena erreferentzia-ikuskarriari helaraziko zaio kontsulta-orri edo -ohar baten bidez. Kontsulta-orrian eskariaren datuak eta eskaria egin duen pertsonaren kontaktu-datuak ageriko dira eta kontsulta-orri horiek erreferentzia-ikuskarriaren ohiko lantokian utziko dira.

Eskaria premiazkoa eta/edo oso garrantzitsua denean, zaintza-ikuskarriak berehala emango dio Lurralde Burutzari gertatutakoaren berri eta kontsulta-orrian erregistratuko du eskaria, eta ondoren orri hori erreferentzia-ikuskarriari emango dio eskariaren berri izan dezan eta erantzun egokia eman ahal izan diezaion. Kontsulta-orri horiek ez dute balio prozedura administratiboa hasteko. Halakoetan, zaintza-ikuskarriak Lurralde Burutzaren jarraibideen arabera jokatu du eta eskaria gertakariaren informatika-programan erregistratuko du, horrelakorik egitea bidezkoa bada.

Zonalde Burutza bakoitzak asteko zaintzak antolatuko ditu eta bermatu egingo du egun bakoitzean zaintzako ikuskari bi egotea gutxienez (Eibarren izan ezik); ikuskari horiek ezagutza espezifikoak izan beharko dituzte hezkuntza-maila desberdinetan. Era berean, Zonalde Burutzek ikastetxeei euren erreferentzia-ikuskarriaren zaintza-egunaren berri emango diete eta premiazkoak ez diren eskariak eta jakinarazpenak egun horretan egin ditzaten eskatuko diete.

Ikuskari bakoitzari jarritako zaintza-eguna errespetatuko da. Justifikatutako arrazoiren bategatik hori posible ez balitz, Zonalde Burutzari jakinaraziko zaio eta hark ordezkapenaren inguruan ebatzi beharko du.

Ikuskaritza-taldeen koordinazioa eta prestakuntza ziurtatzeko, asteko beste egun bat jarriko da, ostirala hain zuzen ere, Ikuskaritzako kide guztiak euren egoitzan egon daitezen edo antolatzen diren prestakuntza-saioetan parte har dezaten.

### **7.4. LAN TALDEAK ETA LAN BATZORDEAK**

Hezkuntza Ikuskaritzaren Antolakuntza eta Funtzionamendua zehazteko 2002ko ekainaren 18ko Aginduan aurreikusitako Lurralde arteko eta Lurraldeko Koordinazio Batzordeez gain, Plan hau indarrean dagoen bitartean ondoko lan-taldeek eta lan-batzordeek funtzionatuko dute:

- **Kalitate Batzordea**

Batzorde hau aipatutako Aginduko 11. artikuluan aurreikusita dago eta ikuskari nagusiaren menpe dago. Lurralde bakoitzeko ikuskari batzuk osatuko dute eta Ikuskaritzak egindako esku-hartze guztien etengabeko hobekuntza izango du helburutzat.

Batzordeak ondoko funtzioak egingo ditu:

- Ikuskaritzaren Kalitatea kudeatzeko sistemaren dokumentazio guztia kontrolatzea, berrikustea eta eguneratzea.
- Talde guztiei euren jardueretan aholkatzea.
- Ikuskaritzaren Kalitatea kudeatzeko sistemaren aplikazioan proposatzen diren aldaketa eta ekintza guztiak ikuskari nagusiari jakinaraziko zaizkio, hark azter ditzan eta egokiak badira onar ditzan.
- Kalitatea kudeatzeko sistemaren barruan egokitu zaion beste edozein funtzio.

- **Azpiprozesu Taldeak**

Urteko Planen azpiprozesuen planifikazioaz arduratzen diren taldeek ondoko ardurak izango dituzte:

- Egokitu zaien azpiprozesua diseinatzea eta planifikatzea.
- Azpiprozesua garatzeko beharrezko jarraibide operatiboak eta dokumentazioa hedatzea.
- Azpiprozesuaren garapena zuzentzea eta koordinatzea Lurraldeetan.
- Dagokion txostena egitea, azpiprozesuaren beraren gauzatzea ebaluatzea eta hobetzeko egin daitezkeen ekintzak proposatzea.

Kalitate Batzordeko eta Azpiprozesu Taldeetako arduradunek, euren jarduerak gauzatzeko, honakoa egin beharko dute:

- **Kalitate Batzordeko arduradunak:**

- Batzordeko kideek egitea aurreikusi diren esku-hartzeak planifikatzea eta programatzea.
- Batzordeko beste kideekin batera, beharrezko txostenak egiteko ardura hartzea.

- **Azpiprozesu Taldeetako arduradunak:**

- Taldeetako kideek egitea aurreikusi diren esku-hartzeak planifikatzea eta programatzea eta Ikuskaritza zentralari horien berri ematea.
- Ikuskaritza zentralari diseinua proposatzea, hark onar dezan. Diseinuan, azpiprozesua egiteko erabiltzea aurreikusi den planifikazioa eta lan-metodologia agertuko dira.
- Azpiprozesua egiteko ezarri den prozedura gainbegiratzea.
- Taldeko beste kideekin batera, beharrezko txostena egiteko ardura hartzea.
- Parte hartu duten ikuskariak emandako informazioan oinarrituta jarduera baloratzea.

## 7.5. ASTEKO JARDUERAK ETA HIRUHILEKOAREN LABURPENA.

Ikuskari-lanaren ezaugarriek eta haren izaera bereziak ematen dute lana malgutasunez antolatzeko aukera eta ikuskari bakoitzak planifikatu behar ditu egin beharreko jarduerak, tokian tokiko zonalde-buruari informazioa emanez. Horretarako, Hezkuntza Ikuskaritzaren asteko jarduerak planifikatu, aztertu eta kontrolatzeko asmoz eta, horretaz gain, ikasturtean zehar egin diren jardueren laburpena egiteko, ikuskari guztiek nahitaez bete behar dituzte agiri hauek:

- Programatutako bisitak eta irteerak egin aurretik bete behar dena, Lurralde- eta Zonalde-Burutzaren eskura egongo dena.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren aplikazio informatikoa, jardueren parte edo agiria deritzona, bisitak eta irteerak egin ondoren beteko dena, eta Zonalde Burutzen zein Lurralde Burutzaren eskura egongo dena. Hiru hilez behin egingo da gauzatutako jardueren laburpen bat eta Zonalde Burutzek tokian tokiko Lurralde Burutzari bidaliko diote.

## 7.6. KOMUNIKABIDEAK

Barneko nahiz kanpoko bezeroen beharrei erantzun ahal izateko, Hezkuntza Ikuskaritzako antolakuntzak bi mailetan komunikazioa gaurkotu et hobetu behar du. Barne-mailan, Urteroko Planak betetzeko barneko web orria erabiltzea eta indartzea funtsezkoa da. Kanpo-mailan, ikastetxeekiko komunikazioan, kanpoko web orrian eskuragarria dagoen informazioa gehitu egingo da, bai bereziki ikasturtean egindako ekintza nagusienei buruzko txostenen publizitateari dagokionean, bai hezkuntza-maila guztietan ezartzen ari den legedi berriak sortarazten dituen zalantzen argitzeari dagokionean ere.

## 8.- HIRU URTEKO PLAN NAGUSIAREN EBALUAZIOA

Hiru Urteko Plan Nagusia Urteko Planetan zehazten da, eta plan horiek ikasturte bakoitzaren amaieran ebaluatuko dira. Hiru Urteko Plan Nagusiaren ebaluazioa bere azken Urteko Planaren ebaluazioaren barruan egingo da eta hiru Urteko Planen ebaluazioak eta berrikuspen-txostenak hartuko dira kontuan.

Hori dela-eta, Zuzendaritzak Urteko Planen ebaluazioetan eta Sistemaren Berrikuspenetan kontuan hartzen dituen alderdien azterketa eta ondorio berak hartuko dira aintzat Hiru Urteko Plan Nagusiaren ebaluazioan.

Hiru Urteko Plan Nagusiaren ebaluazioa Ikuskaritza Zentralak hirugarren Urteko Planaz egiten duen memorian agertuko da, eta hori, aldi berean, Sistemaren Berrikuspena izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko urriaren 10ean.

Hezkuntza-sailburuordea

Izpta: Pedro M<sup>a</sup> Otxoa Bernales